2009-IV-24
Número **272.** zenbakia

ELA
www.ela-sindikatua.org

# astekaria

## EDITORIALA

### Langile jendearen eguna

**Aurtengo Maiatzaren Lehenak badu, ohiko festa eta aldarrikapenaz gain, esanahi berezia ELAko afiliatu eta militanteentzat. Hilabete batzuk daramatzagu *Aberastasuna banatu* kanpainaren barnean, lan taldeetan, delegatuekin, eskualde eta enpresa nahiz sektoretan, egungo egoeraren aurrean hausnarketa sindikala bideratzen eta alderatzen. Ondorenean, ekintza sindikala bideratu dugu Hego Euskal Herriko txoko ezberdinetan ELAren berdeak eta aldarrikapenak uztarturik kaleetan.**

**Maiatzaren 21erako euskal gehiengo sindikalak deitutako grebaren bezperetan gaudela, beste hainbat ekimena prestatu dugu eskualdeetan: delegatuekin asanbladak, manifestaldiak... beti ere kaletako mobilizazioei tinko eusteko eta greba orokorra beraren beroketa lanak indartzeko. Besteak tarte, aurtengo Maiatzaren Lehena testuinguru horretan kokatu beharra dugu, grebarako bidean zubi egiten baitu kanpaina eta greba eguna bitartean. Horixe bera esaten dugu Maiatzaren Leheneko aurtengo leloarekin: borroka bidean. Beraz, festa eta aldarrikapen egun honek antolakuntza aldetik ahalegin berezia eskatzen digu Bilboko kaleak bete ditzagun. Militantzia, afiliatuak, lagunak, sendi arteko denek bat egin behar dugu Bilboko kaleetan sindikalgintzaren ahotsa entzuna izan dadin eta greba aurreko atarikoak gure indarraren erakusgarri izan daitezen.**

**Ez da makala greba gauzatzeko egin beharreko lana, bereziki testuinguru ekonomiko honetan. Horretan gabiltza buru-belarri murgildurik eskualde guztietan ekimena ezberdinak jorratuz, buruari eragin eta sormenari emanez, beti ere, langile klasearen ikuspegia lantokietan hedatzen eta langileen interesak defendatzen. Grebaren arrazoiak azaltzerakoan genion bezala, patronalaren xantaia bizkarretik astintzeko gure jendeak arnasa behar du, aire freskoa. Eta zein egokiago Maiatzaren Leheneko eguna baino elkarri arnasa, babesa eta adorea emateko? Borroka bidean gaude, eta greba egunerako denon ahalegina izango dugu beharrezkoa. Gora Maiatzaren Lehena!**




**Este 1º de Mayo de 2009, día de lucha y reivindicación de la clase trabajadora, es muy especial. Apenas tres semanas después, el 21 de mayo, la mayoría sindical vasca –ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE e HIRU– ha convocado una huelga general en Hego Euskal Herria para responder al brutal ataque que está sufriendo la clase trabajadora.**

## 1º de Mayo: Calentando motores para la huelga general

# VAMOS A TOMAR BILBAO

Quieren que paguemos una crisis que nosotros no hemos provocado. La han provocado unas políticas que ELA lleva años denunciando. Y ahora que el sistema ha estallado pretenden seguir aplicando las mismas políticas. Se trata de que nada cambie para seguir llenándose los bolsillos, mientras la clase trabajadora ve cómo se destruye empleo, cómo se congelan y reducen salarios, cómo se degradan las condiciones laborales…

Este 1º de Mayo hay más razones si cabe para la lucha. Este 1º de Mayo debemos tomar Bilbao y demostrar a la clase política y empresarial de este país que con nosotros no se juega, que vamos a plantarles cara y que no vamos a aceptar resignadamente un nuevo atraco a la clase trabajadora. Este 1º de Mayo debe ser expresión de la lucha planteada día a día en numerosas empresas de Hego Euskal Herria y la antesala del éxito de la huelga general del día 21.

Porque hay un sinfín de razones para la lucha, porque debemos mostrar nuestra disconformidad con las políticas de gobiernos y patronales, porque hay que hacer frente al ataque al que está siendo sometida la clase trabajadora… el 1º de Mayo tienes que estar en Bilbao. Junto a miles y miles de trabajadores y trabajadoras llegados de todos los rincones de nuestro país demostraremos que juntos podemos plantarles cara.

### DÍA DE REIVINDICACIÓN Y FIESTA

Como viene siendo habitual en los últimos años, la gente de ELA estamos convocados a la altura de Gran Vía 85, en BIlbao. Allí, sobre las 11:30 de la mañana, tendrá lugar el mitin, en el que tomará la palabra el secretario general, Adolfo Muñoz, *Txiki*, para, posteriormente, dirigirnos en manifestación hasta la Plaza Circular. Las pancartas reivindicativas, como no puede ser de otra manera, harán referencia a la huelga del día 21, al reparto de la riqueza, a las condiciones de trabajo, a la necesidad de un sistema público, universal y gratuito de servicios sociales, a los salarios, a la precariedad… A ese sinfín de razones que han provocado la convocatoria de huelga general, en definitiva.




Más tarde, celebraremos la tradicional comida y posterior fiesta en el pabellón nº 2 del BEC. La comida dará inicio a las 14:30 horas. Se ruega puntualidad. El precio para los adultos es de 17 euros, y de la mitad - 8,5- para los más peques. Estos, como siempre, tendrán la diversión asegurada con los hinchables, juegos y atracciones varias.

**Apúntalo en la agenda: El 1º de Mayo tenemos una cita en BIlbao.**

# MAIATZAK 21: GIROA BEROTZEN ARI DA

**Greba orokor bat antolatzeak lan handia eskatzen du. ELA horren jakitun da, eta sindikatu osoa buru-belarri dabil Maiatzaren 21eko greba eguna prestatzen. Ahalegin horretan, datozen asteetan ekitaldi ugari egingo da eskualde guztietan. Lehena apirilaren 23an izan zen, Basaurin. Langileen mobilizazioaren bidez greba prestatzen joateko balioko duten lau aste.**

Basaurin mila inguru izan ziren bildu ziren ELAko ordezkariak. Manifestariek Ibaizabal-Nerbioi eskualdeko langileek bizi duten egoera larria salatu zuten. Enplegua suntsitzen ari da, eta hainbat enpresa greban daude, patronalaren xantaiari aurre egin asmoz. Ibaizabal-Nerbioiko langileek argi utzi zuten ez daudela prest euren eskubideen defentsan amore emateko.




(Sigue en la página 2)

## Hau da Maiatzaren Lehenerako ELAk kaleratu duen idazkia

# BORROKA BIDEAN

Maiatzaren Lehenean langile klasearen festa eguna ospatzen dugu. Okerren daudenekin gure elkartasuna adieraziz, lan eta bizi baldintzak hobetzeko xedez, kolektibotzat elkar errekonozitzen dugun gizarte klasearen eguna da. Era berean erreibindikazio eta gure gizartean ematen den aberastasunaren banaketa bidegabea salatzeko eguna ere bada.

Aurtengo Maiatzaren Lehenak gure sindikatua mobilizaziotan murgildurik aurkitzen du, Maiatzaren 21erako deituriko Greba Orokorraren atariko mobilizazioetan. Finean, grebara deitzeko makina arrazoi daude.

Enplegu-suntsiketa eta patronalaren xantaiari aurre egingo diegu. Langile asko ari da lan merkatuko egoeraren ondorioak nozitzen: soldata baxuak, behin behinekotasuna, bereizkeriak, bermerik gabeko azpikontratazioa, lan istripuak, eta espedienteekin edo gabe mugarik gabeko kaleratzeak. Hori gutxi balitz, etekin itzelak metatu ondoren, patronalak beldurra darabil negoziazio kolektiboa xantaiatzeko eta lan baldintzak narriatzeko.

ELAn argi dugu soldatak eta enplegua ez direla, inolaz ere, krisiaren errudunak. Enpresarien etekinak eta espekulazioa dira errudunak, beti ere gobernuek beste alde batera begiratu dutelarik, kasurik onenean. Langile klaseak sortu ez duen egoeraren pagatzaile izan ez dadin borrokatuko dugu. Errealitatea guztiz alderantzizkoa da, hain justu. Soldata mailak beheratzen badira, krisia sakonagoa izango da eta lanpostu gehiago galduko da. Soldatak jaisteak helburu bakarra du: enpresarien etekinak bere horretan mantentzea.

Langile klasearen aldeko politika publikoak aldarrikatuko ditugu. Azken urteotan ondo asko frogatu dugu gobernu eta patronalen arteko batasun estrategikoa, espresuki kontu publikoak hustu eta arpilatzeko. Erakunde publikoek enpresarien errentei zergak jaitsi egiten dizkiete eta iruzur fiskalarekin beste aldera begiratzen dute; gizarte gastuan Europako azken muturrean gaude eta gizartearen beharrak ez dira babesten; aurrekontu publikoak superabit handiekin ixten dira eta... horren bitartean pobreziaren maila ez da batere jaitsi. Are eta gehiago, langabeziak dituen estaldura maila baxuekin, pobreziaren atarian kokatzen ditu makina langabetuak. Egoera horiei babesa emateko gastu soziala handitu beharrean, gastua alferrik galdutako bidean jartzen da, hori baita espekulatzaileei dirua eman eta enpresei hobariak eta diru laguntzak oparitzea.

Ezinbestekoa da greba. Enplegu-suntsiketa gerarazi nahi dugulako; negoziazio kolektiboan patronalaren xantaia astindu eta gure jendeari arnasa emango diogulako; langile jendearen aldeko politika publiko eraginkorrak exijituko ditugulako. Zentzu berean, ekonomi, lan eta gizarte politikak Euskal Herrian bertan erabaki daitezen aldarrikapena grebaren muinean egongo da. Azken urteotan, Gobernu eta patronalen eraginez, elkartasun politikak, enplegua eta gure lan baldintzen aurkako erasorik indartsuena gauzatzen ari da.




Abagune egokia da Maiatzaren Lehena langile klasearen arteko elkartasuna indartzeko eta greba orokorraren prestaketan lan sindikalaren indarra erakusteko.

**GORA LANGILERIAREN ELKARTASUNA!**

**MAIATZAREN 21eko GREBA OROKORRAREN ALDE!**

**GORA MAIATZAREN LEHENA!**

*Este 1º de Mayo es una fecha propicia para reforzar la solidaridad de la clase trabajadora y mostrar la fuerza sindical con que abordamos la huelga general*

## Resumen de la intervención de Adolfo Muñoz, *Txiki*, el 23 de abril en Basauri

# "JUNTOS PODEMOS PARAR A LA PATRONAL"

La huelga general debe tener un seguimiento muy importante. Tenemos que ocupar la calle, democráticamente. Se trata de demostrar nuestra fuerza, de demostrarle a la patronal que podemos y vamos a parar sus intentos de aprovechar la actual coyuntura para seguir enriqueciéndose y precarizando nuestras condiciones laborales. Se trata de demostrar a los gobiernos que tienen que cambiar de políticas públicas y sociales, porque si no, nos tendrán enfrente.

Quiero animar a todos los presentes a hacer un esfuerzo importante en las empresas a lo largo de este mes para sumar más y más apoyos a la huelga. Tenemos la responsabilidad de parar a la patronal, de defender a nuestra gente, y juntos, haciendo piña, podemos hacerlo.

Las razones de la crisis hay que buscarlas en la codicia del capital, en la especulación incontrolada. Sin embargo, han decidido que las consecuencias las paguemos nosotros, la clase trabajadora. La patronal chantajea en la negociación colectiva: quiere recortar salarios y condiciones de trabajo; y los gobiernos pretenden aplicar las mismas recetas que nos han llevado a la situación actual. Hay razones para la huelga. Son razones de clase.

CCOO y UGT defienden un modelo de relaciones laborales basado en un diálogo social que ha fracasado. El resultado de ese diálogo social son unas tasas de paro del 15%, del 30% en temporalidad, una presión fiscal 8 puntos menor que la media europea,y 7 en gasto social... Evidentemente, ese ni puede ser ni es el modelo de ELA.

Finalmente, quiero agrader el trabajo de los delegados y delegadas presentes y os animó a hacer del 1º de Mayo la antesala del éxito de la huelga general del día 21.

## GREBA OROKORRAREN AURKEZPENA NAFARROAN

Maiatzaren 21eko greba orokorra deitzen duten sindikatuek Nafarroan dituzten arduradun nagusiek grebaren aurkezpena egin zuten apirilaren 21ean Iruñan. ELAren izenean Mitxel Lakuntza mintzatu zen hedabideen aurrean, eta Nafarroako langileek bizi duten egoera gogorra salatu zuen. "Egoera lazgarri hau iraultzeko ezinbestekoa da eredu ekonomiko eta soziala errotik aldatzea. Zoritxarrez, Nafarroako Gobernua kontrako norabidetik doa. Patronalari eta errenta altuenei soilik egiten diete mesede, langileon kaltetan. Baikor gara, eta ziur gara greba orokorrerako deialdiak langileon babesa jasoko duela".



**ELAk Euskal Herriko Unibertsitatean duen atal sindikalak hainbat ekimen egin ditu aberastasunaren bidezko banaketa aldarrikatzeko eta greba berotzen joateko. Duela hilabete batzuk Irakeko kazetari bat ezagun egin zen Ameriketako Estatu Batuetako presidente ohi George W. Bushi bere zapatak bota zizkiolako. EHUko atal sindikalak ere Euskal Herriko hainbat neoliberalei zapatak botatzeko aukera eman zuen Gasteiz, Leioa eta Donostiako Kanpusetan. Horretarako hainbat neoliberalen argazkiak jarri zituzten, jendeak bat aukeratu eta zapatak bota zitzan. Punteriarekin asmatu zuenak (eta besteek ere) sagardotxoa, gazta eta txorizoa dastatzeko aukera ere izan zuen.**

### Janire Domínguez critica la inhibición de la administración vasca con motivo del Día Internacional de la Seguridad y la Salud en el trabajo

# LA TEMPORALIDAD FAVORECE LA SINIESTRALIDAD LABORAL



El 28 de abril se celebra el Día Internacional de la Seguridad y Salud en el trabajo. Con este motivo, ELA llevará a cabo dos movilizaciones: una, el día 27, en Iruñea; la otra, el 28, en Bilbao.

Según Janire Domínguez, responsable en materia de seguridad y salud laboral, el aumento de la siniestralidad está ligado a la precariedad y al incumplimiento, por parte de las empresas, de la ley de Prevención de Riesgos Laborales.

**-¿Qué balance hace ELA de la siniestralidad en 2008?**

-Más allá de lo coyuntural de los datos, la siniestralidad es un problema estructural. Anualmente mueren cerca de un centenar de trabajadores y trabajadoras en sus puestos de trabajo. En concreto, el pasado año hubo 103 muertes por accidentes de trabajo en Hego Euskal Herria. Una cifra considerablemente superior a la que reflejan las estadísticas oficiales que, en todo momento, tratan de maquillar los datos, no mencionando los fallecidos por enfermedades profesionales o los accidentes *in itinere*.

**-¿Cuáles son las causas de los accidentes laborales?**

-Desde la administración o la patronal se recurre a menudo a la fatalidad o a la mala suerte para explicar los accidentes laborales, lo que no es cierto.

En primer lugar, hay que destacar la temporalidad como una de las causas principales de los mismos. Los accidentes graves y mortales son más frecuentes entre el personal con contratos eventuales. A ello habría que añadir que a menos experiencia más riesgo de accidente. Más del 40% de los accidentes graves y mortales afectaron a empleados con menos de un año de antigüedad.

*Lanaren behin-behinekotasunak istripuak eragiten ditu*

Por sectores, el riesgo de sufrir un accidente grave o mortal es 6 veces más elevado en el sector primario que en el de servicios, 3 veces más elevado en el sector de la construcción, y 1,6 veces más en la industria.

Y la incidencia de la siniestralidad entre el personal inmigrante cada vez es mayor: en 2008, un 10%, superior al peso que éstos tienen en el empleo.

**-Llama la atención el poco interés que muestra Osalan ante las enfermedades profesionales.**

-Efectivamente, la dejación en este punto es total. Cuando a nivel europeo y mundial está reconocido que el problema de las enfermedades profesionales es todavía más grave que el de los accidentes de trabajo, aquí parece no importar, no pasa nada.

Los datos oficiales no reflejan, ni de lejos, la realidad. Según Osalan, en 2008 se denunciaron 2.666 casos, y ninguno de ellos mortal. Es increible.

Los pocos datos existentes indican que la industria es el sector con mayor incidencia de las enfermedades profesionales y que trabajadores o trabajadoras con edades superiores a los 45 años son los mas afectados, sobre todo de enfermedades osteomusculares.

Lamentablemente, los trabajadores y trabajadoras tendrán que seguir denunciando y peleando en los juzgados para que se reconozca que su enfermedad es como consecuencia del trabajo.

**-¿Qué valoración hace ELA de Osalan?**

-El pasado 25 de marzo se celebró el Consejo General de Osalan, en cuyo orden del día figuraba la presentación y aprobación, en su caso, de la Memoria del ejercicio 2008 y el Plan de Gestión para el 2009. ELA votó en contra en ambos casos.

Los motivos son muchos. En primer lugar, la formación que se realiza es insuficiente, especialmente en el sector de la construcción.

Por otra parte, la inspección y control es escaso y de poca calidad. Aunque se ha habilitado a técnicos no se ha dado un incremento significativo en el número de inspecciones. Es más, en determinados apartados, como inspecciones en subcontratas y pymes del sector primario y servicios, ha habido un descenso.

Lo realizado hasta ahora es insuficiente, y se presenta, de cara a futuro, un plan pobre, poco ambicoso y continuista, que no mejorará en absoluto la actual situación.

**-¿Qué propone ELA?**

-Para ELA está claro que el cumplimiento de la normativa en materia de seguridad es responsabilidad de las empresas, y que la administración tiene que velar por su cumplimiento. Algo que, evidentemente, no se da, ya que no se quiere, no hay ninguna intención de confrontar con la patronal. Cuando no hay voluntad de exigir a la patronal, no tiene sentido hablar ni de consensos ni de diálogos sociales.

ELA exige que no se juegue con la seguridad y salud de los trabajadores y trabajadoras y se de un giro radical en las políticas de salud y seguridad laboral.

Tenemos claro cuál es el camino. Hay que luchar en la negociación colectiva para reducir la precariedad, el fraude en la contratación, los ritmos de trabajo y la subcontratación... que, indudablemente, aumentan el riesgo de accidentes en las empresas y en los tajos.

Y organizarnos, luchar y revindicar en cada centro, en cada puesto de trabajo, en cada mesa de negociación, para conseguir más y mejor prevención, seguridad y salud.

*Langileen segurtasun eta osasunarekin jolasean ez ibiltzea exijitzen dugu*

## Labur Breves

### ● En defensa del empleo en Arcelor Mittal

La Federación del Metal de ELA exige a la multinacional Arcelor Mittal que mantenga el nivel actual de empleo y la futura viabilidad de todas y cada una de las plantas que la compañía tiene en Euskal Herria, tras el anuncio de suspender temporalmente su producción en las plantas europeas.

ELA muestra su preocupación ante las futuras consecuencias de las decisiones que está adoptando la dirección de la multinacional, al mismo tiempo que exige que se garanticen las inversiones y las cargas de producción previstas.

### ● Manifestazio arrakastatsua Amurrion

Ehunka lagunek hartu zuten parte Tubos Reunidos-eko enpresa batzordeak eta Tubacex-eko ELA eta LABeko atal sindikalek Amurrion apirilaren 17an deitutako manifestazioan. Antolatzaileek mobilizazio horren bidez enplegu-suntsiketari aurre egin eta patronalaren xantaia salatu nahi izan zuten.

"Behin-behineko enplegua osoosorik suntsitu da, eta gainerako langileen %60 langabeziara bidali du enpresak Enplegu-Erregulazioko Espedienteen bidez. Langileok ezin duguna ahaztu da bi enpresa horiek azken urteetan irabazien marka guztiak hautsi dituztela etekinetan eta dibidenduen banaketan", zioen manifestazioaren amaieran irakurri zen testuak.

### ● Ofensiva empresarial contra el convenio de la construcción de Gipuzkoa

La federación Hainbat ha denunciado la ofensiva empresarial de la patronal de la construcción de Gipuzkoa contra los derechos laborales de los trabajadores y trabajadoras del sector. Para ello cuentan con la cobertura de las de las administraciones locales, foral y autonómica.

Como consecuencia de esta política se está dando una masiva destrucción de empleo entre los trabajadores/as que se les aplica el convenio provincial, al mismo tiempo que se intensifica la subcontratación irregular.

Mientras se destruye empleo fijo y con derechos laborales, a las personas que trabajan en las empresas subcontratadas se les niegan estos derechos y se les obliga a trabajar en pésimas condiciones de seguridad y salud laboral.

ELA denuncia que la mayoría de los contratos de las empresas subcontratadas son en fraude de ley y que las jornadas no tienen limite de tiempo. Además, los salarios están muy por debajo de lo recogido en el convenio provincial.

## Amagoia Unanue, gazteen alorreko arduraduna

# "GAZTEOK KRISI ESTRUKTURALA BIZI DUGU"



Euskal Herriko langile guztiak ari dira pairatzen krisiaren ondorioak. Baina, zalantzarik gabe, hiru dira sektorerik kaltetuenak: etorkinak, emakumeak eta gazteak. Amagoia Unanuek gazteek bizi duten egoeraren inguruan hausnartzen du.

**-Langileok garai gogorrak bizi ditugu; gazteak, noski, ez daude egoera honetatik aparte.**

-Bai, hala da. Krisia estrukturala da gazteen kasuan, eta hori egiaztatzeko hiru aldagai oso esanguratsu azpimarratu ditzakegu lan munduan: langabezi tasa eta behin behinekotasun tasa altuagoak, eta soldatak, berriz, baxuagoak.

Hegoaldeko datuek egoeraren gordintasuna adierazten dute. 24 urtez azpikoen artean langabezi tasa %22,6koa da, eta 25 eta 34 urte bitartekoen artean, %10,4. Soldatei dagokionez, nabarmen baxuagoak dira. 20 eta 24 urte bitarteko gazteek %25,2 gutxiago irabazten dute, eta 25 eta 29 urte bitartekoak, berriz, %12,2 gutxiago. Langileon egoera ez da xamurra; gazteena, are eta gutxiago.

**-Zein ondorio ditu honek guztiak?**

-Pobrezia tasa altuagoa da gazteen artean. Gazteen %10,6 pobrezia egoeran bizi da. Gizarte osoan kopuru hori %4,1ekoa da.

Baina, ezkutuko pobreziaren arazoa ere hor dago. 15-24 adin tartean %47,6raino heltzen da kopurua. Datu horrek honakoa suposatzen du: gazte horiek ez direla pobre beraien familien sostengua dutelako. Sostengu hori gabe, laguntza hori galduko balute, pobrezian egongo lirateke. Horrek bizitza independente bat burutzeko eta haurrak izatea baldintzatzen die, besteak beste.

Are gehiago, 107.300 pertsonek bizitza independientea burutu nahi dute, baina ezin dute, baliabide faltatagatik. Jakina, hauetatik asko eta asko gazteak dira.

**-Nola eragiten ari da krisia gazteengan?**

-Krisiak egoera are eta okerrago batera garamatza gazteak. 2008an galdutako enplegu gehiena 16-34 urte tarteko pertsonetan eman zen. Iaz 34.000 lanpostu galdu ziren; horietatik 33.700 lanpostu 34 urtez azpikoen artean suntsitu zen. Hau da, suntsitutako lanpostuen %99,4az mintzo gara.

Hau guztiz lotuta dago behin-behinekotasunarekin: %68,4koa da 24 urterartekoen artean, eta %32,8koa 34 urterartekoen artean. Jakin badakigu enplegu galera behin behineko kontratuak ez berritzearekin ematen ari dela batez ere. Begibistakoa da behin-behinekotasun altuena izanik, enplegu suntsiketa nabarmenena gazteetan ematea.

Gero eta neoliberalagoa den ereduak, lan merkatu prekarioagoa bultzatzen du, eta gazteak bertara berriki sartzen direnak eta sartzera doazenak, lan baldintza nabarmen kaxkarragoak dituzte. Egoera honi buelta emateko, antolatu eta borrokatu beste aukerarik ez dugu.

> *"Casi todo el empleo destruído afecta a la gente joven"*

## Labur Breves

### ● ELA no firma el ERE en la empresa Outokompu

Outokompu ha propuesto un ERE de suspensión de 180 días para 250 trabajadores/as. En opinión de ELA el objetivo de la dirección es hacer caja para el despido de 150 trabajadores, el 60% de la plantilla. ELA insiste en que el futuro de la planta pasa por un plan industrial sobre las bases de mantenimiento de plantilla y eficiencia, no sobre políticas especulativas y antisociales.

### ● Eskola jantokietako greba, arrakastatsua

Erabateko jarraipena izan du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxe publikoetako jantokietan azpikontratatuta dauden langileek egin duten grebak. Hamar langiletatik bederatzik bat egin du ELA, LAB, CCOO eta UGT-k deitutako bi egunetako grebarekin.

Azpikontratatutako langileek honakoa eskatzen dute: euren lan baldintzak eta soldatak Hezkuntza Sailak kontratatutako langileekin parekatzea.

### ● Interior contra la huelga de limpieza en Loiu

La sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dio la razón a ELA en el recurso presentado contra la Resolución del Director de la Ertzaintza. Entre otras cuestiones, dicha resolución prohibía la utilización de megafonía u otros elementos ruidosos en las concentraciones que, con motivo de la huelga de este personal, venían desarrollándose en el Aeropuerto de Loiu.

La resolución del Gobierno Vasco y los servicios mínimos abusivos –que también han sido recurridos– provocaron la suspensión de la huelga. Esta sentencia vino a reponer el derecho de los huelguistas, derecho que fue recortado en la misma víspera del inicio de la huelga con una resolución que ni tan siquiera contó con el trámite de audiencia previo, y por tanto, creaba indefensión.

### ● Presoen sakabanaketaren aurka

ELAren ordezkaritza bat Durangon izan zen apirilaren 19an, Etxerat-ek egungo espetxe politikaren amaiera exjitzeko egin zuen ekitaldian. Ekitaldi horrekin amaiera eman zitzaion Etxeratek sakabanaketaren aurka antolatu duen birari. Hainbat eragile sozialek, horien artean ELAk, sakabanaketaren amaiera eta gaixo dauden presoak zein zein zigorra beteta dutenak aske uzteko eskatzen duen agiria irakurri zuten.

### ● Sei hilabetez greban Errenteriako Sabecon

Urte erdi greban bete ondoren Errenteriako Sabecoko langileek mobilizazioekin jarraitzeko asmoa agertu dute. Langileek Gipuzkoako Elikadura hitzarmena aplikatzea eskatzen dute. Izan ere, egungo hitzarmenarekin hilean 730 euro irabazten dituzte; Gipuzkoako hitzarmena ezarriko balitzaie hilean soldata %30 handiagoa izango zen.

Bestalde, Errenteriako udalak mozio bat onartu du. Onartutakoaren arabera, Sabecok denda behin betiko itxiko balu, honen ustiaketaz arduratuko litzatekeen enpresa berriak oraingo langileak kontratatu beharko lituzke, eta Gipuzkoako lan hitzarmena aplikatu.

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207